



Tubos Reunidos enpresako langileak gaur mobilizatu dira atzo gertatutako lan heriotza salatzeko

AIRALDEA.EUS :: 28/05/2025

Elkarretaratzea egin dute fabrika barruan, atzo Trapagarango Pavimprot enpresa azpikontratutako langile bat hil zela salatzeko

Tubos Reunidos konpainiako enpresa batzordeak elkarretaratzea egin du gaur goizean lantegian bertan. Behargin ugari batu dira salatzeko atzoko lan istripua, zeinak langile baten heriotza eragin zuen.

Hildakoa Pavimprot enpresa azpikontratatuaren eskutik ari zen beharrean, hainbat metroko erorketa izan zuenean.

Sindikatuak salatu dute prekarietateak sortzen dituela heriotza horiek. Atzo bertan langile erakundeek zuzendaritza sakatu zuten ekoizpena 24 orduz gelditzeko. ESK sindikatuak salatu du enpresak ez zuela prestutasunik adierazi hori egiteko eta langile batzordearen exigentziaren ondorioz gelditu zela produkzioa.

Gaur arratsaldean beste elkarretaratze bat egongo da lan heriotza salatzeko, Amurrioko Juan Urrutia plazan 19:00etan, SOS Aiaraldeak deituta.

<https://eh.lahaine.org/tubos-reunidos-enpresako-langileak-gaur>